

MARMAR eta KARKAR

NAHASTE
*
BORRASTEA!

TRACEY CORDEROY

LEE WILDISHEN MARRAZKIAK

ITZULPENA: USOA WYSSENBACH





ISTORIOAK


1) NAHASTE-BORRASTE! 7

2) IZAN ARGI: DENA GARBI! 37

3) SAGU SARIAK! 69



NAHASTE
*
BORRASTE!





LEHEN KAPITULUA

Zzzzzzz... Gauerdia zen. Mundu guztia lo zegoen; beno, mundu guztia ez. Aldrebes Enean argi bat piztuta zegoen. Bazen norbait jaikita. Jaikita eta jantzita. Eta norbait hura, berdea eta ñimiñoa bera, lehertzeaz zegoen irrikaren irrikaz.

—Marmarti, esna zaitez! —oihu egin zion Karkarrek, Marmar burkoarekin astinduz—. Gaur da zinemara joateko eguna!

MARMAR ^{eta} KARKAR

—Eee? –murduskatu zuen troll more handiak—. Nor dabil hor? –Begi makartsu bat zabaldu zuen—. Utzi bakean, Karkarrontzi! Gauerdia besterik ez da! Zoaz lotara, *trolliburu* hori! –Ipurdi iletsua hazkatu, korrokada ozen bat egin, eta begia itxi zuen—. Eta ez nazazu esnatu gosarira arte, bestela igarriko diozu!

Karkarrek hasperen egin, eta ohera itzuli zen. Baina urduriegi zegoen lokartzeko. Hortaz, lokartu beharrean, koltxoian saltoka hasi zen gora eta behera, ikustera zihoazen filmari buruz pentsatzen zuen bitartean...

